

KANBO HERRIA

Pirinio Atlantikoetako departamendua

ERABAKIEN AKTA

2020ko ABENDUAREN 5eko

HERRI BILTZARRA

Bi mila eta hogeiko abenduaren bosgarren egunean biltzera deiturik, herriko biltzarra Christian DEVÈZE, jaun auzapezaren lehendakaritzapean bildu da "l'Aiglon" zineman. Biltzarra goizeko 9etan hasi da.

Hor ziren: Christian Devèze auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku, Corinne Othatceguy, Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Carmen Gonzalez, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Didier Irastorza, ordea.

Ahalordeak: Didier Irastorza jaunak Eliane Aizpuru andereari.

– Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Jean-Paul Eyherachar hautatu dute saioko idazkari izateko.

– Iragan biltzarraren aktaren onarpena (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarkideei proposatu die 2020ko azaroaren 7ko Herri Biltzarraren akta onartzea.

Aho batez onartua.

50-A – Elkarteentzako diru laguntzak (Aizpuru andereak aurkeztua).

2020ko uztailaren 16ko erabakiarekin, Herri Biltzarrak elkar-teentzako 2020ko diru laguntzen ematea onartu zuen, pandemia egoerak sortu arazoak kontuan izanik.

Herri Biltzarkideei proposatu die diru laguntza batzuk emendatzea, jakinez elkarte batzuek beren jarduera burutu ahal izan dutela 2020ko urtean zehar. Honela, kirol elkarteek 5 538 € eta Turismo Bulegoak 10 000 € ukanen dute.

Aho batez onartua.

Didier Irastorza jauna biltzar gelan sartu da.

50 - Aurrekontu nagusiaren 2. aldaketa erabakia (Aizpuru andereak aurkeztua).

Kontuan izanik 2020ko aurrekontuko lerro batzuk apalegiak direla, Herri Biltzarrari eskatu zaio aurrekontu nagusiaren 2. aldaketa erabakia onartzea, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

51 - Hilobi eta columbariumen aurrekontu erantsiari buruzko 1. aldaketa erabakia (Aizpuru andereak aurkeztua).

Kontuan izanik 2020ko aurrekontu nagusiko lerro batzuk apalegiak direla, Herri Biltzarrari eskatu zaio hilobi eta columbariumen aurrekontu erantsiaren 1. aldaketa erabakia onartzea, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Aho batez onartua.

52 – Inbertsio gastuetarako aurretiazko kreditu lerro baten irekitzea (Auzapezak aurkeztua).

Herriak hainbat inbertsio programa bideratu zituen 2020 urtean, eta hauen ondorioz 2021ean kontratuzko eta diruzko engaiamenduak gelditzen zaizkigu. Alta, 2021 hasieran hartu finantza engaiamenduak kontularitza ikuspegitik ezin ditugu gauzatu, inbertsiorako kredituak 2021eko hasierako aurrekontuan ireki ez diren artean.

Herri biltzarrari eskatu zaio, azalpen txostenean agertzen den bezala, 2020ko inbertsio gastuetarako kredituak 2021eko hasierako aurrekontuko kredituen %25eko heinean aurretiaz irekitzea.

Aho batez onartua.

53 – Turismo Bulegoa : 2017-2019 helburu hitzarmenari 2. eranskina (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio Auzapezari baimena ematea Turismo Bulegoarekiko 2017-2019 helburu hitzarmenaren 2. eranskina izenpetzeko, azalpen ohar sintetikoak aurkeztua den bezala, zeinak 2020ko diru laguntza 160 000 €tan finkatzen duen.

Gehiengoz onartua.

Bozkan parte hartu ez dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

54 – Turismo Bulegoa: 2021-2023 helburu hitzarmena (Irastorza jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio Auzapezari baimena ematea Turismo Bulegoarekiko 2021-2023 helburu hitzarmenaren izenpetzeko, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua den bezala, zeinak Turismo Bulegoaren 2021, 2022 eta 2023ko funtzionamendu kredituak 200 000 €tan finkatzen dituen.

Gehiengoz onartua.

Bozkan parte hartu ez dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

55 – Tenis zelai estalien eraikitzeke proiektua: gidaritza batzordea (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio erabakia eman dezan tenis zelai estalien eraikuntza proiektua osoki segituko duen gidaritza batzordea sortzeko eta bertan izanen direnak izendatzeko: Auzapeza, kirolestako ordea, hirigintza ordea, obretarako herri kontseilaria, obra koordinatzailea, Kanboko Tenis Taldeko presidentea, Zerbitzuen Zuzendari Nagusia, Zerbitzu Teknikoen Zuzendaria, Euskal Elkargoko ordezkari bat eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduko ordezkari bat.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dutenak: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen.

56 – Kirol ekipamenduen erabiltzeko hitzarmena (Auzapezak aurkeztua).

2001etik, Kanbo herriak Errobi Kolegioaren esku ezartzen ditu bere jabegokoak diren Michel Labeguerie kirol konplexuko honako ekipamenduak:

Gune estaliak: kirol gela, dojoa eta ezker pareta.

Gune ez estaliak: kirol eremua eta zelaia.

Herri Biltzarkideei proposatu die hiruko hitzarmen baten izenpetzea (Pirinio Atlantikoetako Departamendua, Errobi Kolegioa eta Kanbo herria) sei urterako (2020-2026), 2020ko irailaren 1ean hasiz, azalpen ohar sintetikoan aurkeztua den bezala. Hitzarmenak ekipamenduen erabiltzeko baldintzak eta ordainak finkatzen ditu.

Aho batez onartua.

57 – HeliNet proiektua: Lapurdiko Ospitalearekiko hitzarmena (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu dio Auzapezari baimena ematea Lapurdiko Ospitalearekin ekipamenduen kudeatzeko hitzarmen baten izenpetzeko, azalpen ohar sintetikoak aurkeztua den bezala. Hitzarmen horretan Kanbo herriak Lapurdiko Ospitaleko larrialdi zerbitzuek errugbi zelaia gauez ala egunez erabiltzeko lankidetzak baldintzak finkatzen ditu.

Aho batez onartua.

58 – Essor Cycliste Basque lasterketa: 2021eko hitzarmena (Irastorza jaunak aurkeztua).

Herri Biltzarrari eskatu zaio auzapezari baimena ematea Essor Cycliste Basque-ekin hitzarmena izenpetzeko. Lasterketa 2021ko otsailaren 7an iraganen da Kanbon. Kanbo lasterketaren abiapuntua izanen da eta antolatzaileei 3500 €ko laguntza baten emateari buruz deliberatzea ere eskatu zaio.

Aho batez onartua.

59 – Langilegoa: "Centre de Gestion 64" egiturarekiko hitzarmenaren arraberritzea, Ikuskaritza Funtzioetarako Agente baten eskura ezartzeko (Auzapezak aurkeztua).

Herri Biltzarkideei proposatu die Auzapezari baimena ematea CDG 64-rekin urte bateko hitzarmena izenpetzeko 2021eko abenduaren 31arte, Ikuskaritza Funtzioetarako agente bat eskura ezar dezan, herriak beharrezkoa baitu laneko higie eta segurtasunaren alorrerako.

Aho batez onartua.

60 – Langilegoa: enplegu baten sortzea (Aristizabal andereak aurkeztua).

Herri Biltzarkideei proposatu die hezkuntza-haurtzaro-gazteria arduradun postu iraunkor baten sortzea 2021eko urtarrilaren 1etik goiti.

Aho batez onartua.

Auzapezaren erabakien komunikazioa (Auzapezak aurkeztua).

Auzapezak Herri Biltzarkideei azaldu dizkie, azalpen ohar sintetikoan agertzen diren eta bere eskuordetzaren esparruan hartu dituen erabakien berri.

Solasgai guztiak landurik, saioa 10:35ean bukatu da.